



Urteko kontuen onarpena



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoko Batzar Nagusiak, 2020ko ekainaren 30eko ohiko bileran, besteren artean, ondorengo erabakia hartu du:

La Asamblea General del Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, en sesión ordinaria de 30 de junio de 2020, ha adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

6. "Onartzea urteko kontuak eta lege ikuskaritza"

6-"Aprobar las cuentas anuales y la auditoria legal"

Bidezko ondorioetarako ziurtatzen dut

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoak, bere 19.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, espreski jasotzen dut honako ziurtagiria aipatu bileraren akta onartu aurretik igortzen dala.

Lo que certifico a los efectos oportunos.

De conformidad con lo establecido en el art. 19.5 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, se hace constar expresamente que la presente certificación se emite con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a la sesión de referencia.

Donostia, 2020ko ekainaren 30ean
En San Sebastián, a 30 de junio de 2020

Esther Etxeberria Arano

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako idazkariordea
Vicesecretaria de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa



Urteko kontuak



2019KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

KONTUAK	AKTIBOA	MEMORAN AIPIAK	2019	2018	KONTUAK	ONDARE GARBA ETA PASIBOA	MEMORAN AIPIAK	2019	2018
	A) AKTIBO EZ KORRONTEA		331.889,91	481.770,09		A) ONDARE GARBA		2.402.457,25	2.619.392,07
200, 201 (2800), (2801)	I. IBILGETU UKEZINA	4	331.259,83	479.738,45	100	I. Ondarea		251.412,38	251.412,38
203 (2803) (2903)	1 - Inbertsioa ikerketan eta garapenean				120	II. Sortutako ondarea		2.148.563,66	2.353.389,56
206 (2806) (2906)	2 - Jabetza intelektual eta industriala		1.485,61	1.772,64	129	1 - Aurreko ekitaldetako emaitzak		2.360.914,25	2.045.142,86
207, (2807) (2907)	3 - Aplikazio informetikoak		329.774,22	477.965,81		2 - Bataidiko emaitza		-211.350,59	308.226,70
208, 209 (2809) (2909)	4 - Errentamendu-erregimenaren erabilaketa eta agalakotako aktiboen gaitasun inbertsioak				136	III. Balio-aldaketan dagoenak			
	5 - Bestelako ibilgetu ukézina				133	1 - Ibilgetu ez-finantzarioa			
						2 - Aldibo finantzario salgaia			
210 (2810) (2910)	II. IBILGETU MATERIALA	4	429,68	2.031,64	134	3 - Estaldura-eragileak			
211 (2811) (2911)	1 - Lurrak				130, 131, 132	IV. Emaitzel egozteko dauden ondarearen beste gehikuntza batzuk	7	1.481,21	14.810,13
212 (2812) (2912)	2 - Eraikuntzak								
213 (2813) (2913)	3 - Azpiegiturak								
214, 215, 216, 217, 218, 219, (2814) (2815) (2816) (2817) (2818) (2819) (2914) (2915) (2916) (2917) (2918) (2919) (2999)	4 - Ondare historikoen ondasunak								
230, 231, 232, 233, 234, 235, 237, 238, 2390	5 - Bestelako ibilgetu materiala		429,68	2.031,64					
	6 - Egitze-bidean den ibilgetu eta aurrerakinak								
220 (2820) (2920)	III. Ondasun higiezinak inbertsioak								
221 (2821) (2921)	1 - Lurrak								
2301, 2311, 2391	2 - Eraikuntzak								
	3 - Hainbat ondasun higiezinak inbertsioak eta aurrerakinak								
2400 (2930)	IV. Epe luze inbertsio finantzarioak								
2401, 2402, 2403, (2408), (2931), (2932), (2933), 241, 242, 245, (294) (295) 246, 247	1 - Inbertsio finantzarioak zuzenbide publiko erakundearen ondarean								
	2 - Inbertsio finantzarioak erakunde publikoaren zuzenbide pribatu erakunde publikoaren eta beste balzuen ondarean								
250, (259) (296)	3 - Kredituak eta zorra adierazten duten baloreak								
	4 - Beste inbertsio batzuk								
	V. Epe luze inbertsio finantzario batzuk								
251, 252, 254, 256, 257 (297) (298) 253 258, 26	1 - Inbertsio finantzarioak ondarean								
	2 - Kredituak eta zorra adierazten duten baloreak								
	3 - Finantza-deribatuek								
	4 - Beste inbertsio finantzario batzuk								
	B) AKTIBO KORRONTEA		10.015.959,77	9.553.808,08		C) PASIBO KORRONTEA		7.945.192,03	7.418.184,07
38 (398)	I. Salgai dauden aktiboak					I. Epe laburreko hornidurak			
37 (397)	II. Izakinek					II. Epe laburreko zorrak			
30, 35, (390) (395) 31, 32, 33, 34, 36 (391) (392) (393) (394) (396)	1 - Beste erakunde batzuenak erosiak edo erakundeko aktiboak					1 - Obligazioak eta bestelako balore negozialarriak			
	2 - Salgaiak eta amaizatuak produktak					2 - Kreditu-erakundeak zorrak			
	3 - Hornikuntzak eta beste batzuk					3 - Finantza-deribatuek			
430, 431, 435, 436, 443 (490)	III. Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	5	232.878,02	573.714,97		4 - Bestelako zorrak			
440, 441, 442, 446, 449, 505, 508 47	1 - Gestio-eragileentzako zordunak		38.983,00	93.159,85		5 - Epe laburreko errentamendu finantzarioak hartzekoak			
450, 455, 456	2 - Kobratu beharreko beste kontu batzuk		47.309,49	144.292,32		III. Taldeko erakundeekin, talde antzekin eta elkartuekin epe laburreko zorrak			
	3 - Administrazio publikoak		146.585,53	336.262,80		IV. Hartzekoak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	6	7.945.192,03	7.408.839,38
	4 - Beste erakunde publiko batzuek balabideak banatzeagatik hartzekoak					1 - Gestio-eragileentzako hartzekoak		365.511,80	281.717,82
530, (539) (593)	IV. Inbertsio finantzarioak epe laburreko taldeko erakundeekin, talde antzekin eta					2 - Ordaindu beharreko beste kontu batzuk		7.526.510,60	7.096.704,76
531, 532, 535, (594) (595) 536, 537, 538	1 - Inbertsio finantzarioak merkataritza-sozialen ondarean					3 - Administrazio publikoak		33.169,63	28.216,80
540 (549) (596) 541, 542, 544, 546, 547 (597) (598) 543	2 - Kredituak eta zorra adierazten duten baloreak					4 - Beste erakunde publiko batzuen kontura balabideak banatzeagatik hartzekoak			
545, 548, 565, 566	3 - Finantza-deribatuek					V. Aldizkotasunagatik dagoenak	8		7.544,89
480, 567	4 - Beste inbertsio finantzario batzuk								
	VI. Aldizkotasunagatik dagoenak		935,58	967,77					
577	VII. Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk		8.782.146,20	8.879.123,31					
556, 570, 571, 573, 575, 576	1 - Bestelako aktibo likido batzuk		9.782.146,20	9.879.123,31					
	2 - Druzein								
	AKTIBO GUZTIRA (A+B)		10.347.848,68	10.035.578,16		ONDARE GARBA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)		10.347.649,28	10.035.875,14



**2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE
 EKONOMIKOAREN EMAITZAREN KONTUA**

KONTUAK		MEMORIAN AIPUAK	2019	2018
	1.- Zerga bidezko sarrerak		0,00	0,00
720, 721, 722, 728, 73	a) Zergak			
740	b) Tasak			
744	c) Zerga bidezko beste sarrera batzuk			
	2.- Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	7	2.939.681,46	3.136.073,81
	a) Ekitaldikoak		2.926.552,54	2.960.647,00
751	a 1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak		2.926.552,54	2.960.647,00
750	a 2) transferentziak			
752	a 3) ondare-elementu baten finantzazio zehatza adierazten ez duten pasiboak kitatzeko jasotako diru-laguntzak			
7530	b) Ibilgetu ez-finantzarioarentzako jasotako diru-laguntzak egozteak		13.128,92	175.426,81
754	c) Aktibo korronteetarako eta beste batzuetarako jasotako diru-laguntzen egozteak			
	3.- Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	13	451.904,68	436.016,92
700, 701, 702, 703, 704, (706) (708) (709)	a) Salmenta garbiak		451.904,68	436.016,92
741, 705	b) Zerbitzu-ematea			
707	c) Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboengatik sarreraren egozteak			
71+, 7930, 7937, (6930), (6937)	4.- Amaituta dauden eta produzitzen ari diren produktuen izakinen aldaketak eta balio-narriadura			
780, 781, 782, 783	5.- Erakundeak bere ibilgetuarentzat egindako lanak			
776, 777	6.- Gestio arrunteko beste sarrera batzuk		1.800,00	1.445,76
795	7.- Hornidura-soberakinak			
A) GESTIO ARRUNTEKO SARRERA GUZTIAK (1+2+3+4+5+6+7)			3.393.386,14	3.573.536,49
	8.- Langileek eragindako gastuak		-421.667,40	-366.277,14
(640), (641)	a) Soldadak, lantariak eta parekoak		-335.394,17	-292.469,07
(642), (643), (645), (649)	b) Karga sozialak		-86.273,23	-73.808,07
(65)	9.- Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak			
	10.- Hornidurak	13	-33.552,00	-53.985,00
(600), (601), (602), (605), (607), 606, 608, 609, 61*	a) Salgaien eta beste hornidura batzuen kontsumoa		-33.552,00	-53.985,00
(6933), (6931), (6932), 7933	b) Salgaien, lehengaien eta beste hornidura batzuen balio-narriadura			
	11. Gestio arrunteko beste gastu batzuk	13	2.999.361,78	-2.632.669,20
(62)	a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak		-2.994.979,32	-2.529.798,95
(63)	b) Zergak			
(676)	c) Bestelakoak		-4.382,46	-2.870,25
(68)	12. Ibilgetuaren amortizazioa	4	-150.080,58	-312.350,91
B) GESTIO ARRUNTEKO GASTU GUZTIAK (8+9+10+11+12)			-3.604.661,76	-3.265.282,26
I. Gestio arruntaren emaitza (aurrezkiak edo desaurrezkiak) (A + B)			-211.275,62	308.254,24



(690), (691), (692), (6938), 790, 791, 792, 799, 7938 770, 771, 772, 774, (670), (671), (672), (674) 7531	13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta inorenganatzegatik emaltzak			
	a) Balio-narriadura			
	b) Bajak eta inorenganatzak			
	c) Ibilgetu ez-finantzarioarentzako jasotako diru-laguntzen egozteak			
	14.- Arruntak ez diren beste partida batzuk			
773, 778	a) Sarrerak			
(678)	b) Gastuak			
II Eragiketa ez finantzarioen emaitza (I + 13 + 14)			-211.275,62	308.254,24
	15.-Sarrera finantzarioak			
	a) Ondare-tresnetako partaidetzat datozenak			
7630	a. 1) Taldeko erakundeetan talde anitzetan eta elkartuetan			
760	a. 2) Beste erakunde batzuetan			
7631, 7632	b) Negozia daitezkeen baloreetatik eta kredituetatik			
761, 762, 769, 76454, (66454)	b. 1) Taldeko erakundeetan, talde anitzetan eta elkartuetan			
	b. 2) Bestelakoak			
755, 756	c) Gastu finantzarioak finantzatzeko diru-laguntzak eta eragiketa finantzarioen ekitaldiari egozteak			
	16. Gastu finantzarioak		-74,97	-27,54
(663)	a) Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin zorrak izateagatik			
(661), (662), (669), 76451, (66451)	b) Bestelakoak		-74,97	-27,54
784, 785, 786, 787	17. Aktiboari egotzitako gastu finantzarioak			
	18. Arrazoizko balioaren aldatetarako aktibo eta pasibo finantzarioetan			
7646, (6646), 76459, (66459)	a) Finantza-deribatuak			
7640, 7642, 76452, 76453, (6640), (6642), (66452), (66453)	b) Arrazoizko balioko beste aktibo eta pasibo batzuk, emaitzei egotzita			
7641, (6641)	c) Aktibo finantzario salgarriengatik ekitaldiko emaitzara egozteak			
768, (668)	19. kanbio-diferentziak			
	20. Balloaren narriadura, bajak eta aktibo eta pasibo finantzarioak inorenganatzak		0,00	0,00
7960, 7961, 7962, 7963, 7965, 766, (6960), (6961), (6962), (6963), (6965), (666), 7970, (6970), (6670) 765, 7966, 7971, 7972, (665), (6671), (6964), (6966), (6971), (6972), (6973)	a) Taldeko erakundeetan, talde anitzetan eta elkartuetan			
	b) bestelakoak			
III Eragiketa finantzarioen emaitza (15 + 16 + 17 + 18 + 19 + 20)			-74,97	-27,54
IV EKITALDIKO EMAITZA (AURREZKIA ETA DESAURREZKIA) GARBIA (II + III)			-211.350,59	308.226,70



**1. 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE GARBIA
ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA**

	MEMORIAN AIPUAK	I. Ondarea	II. Sortutako ondarea	III. Balio- aldaketen doikuntzak	IV. Ondarearen beste gehikuntza batzuk	GUZTIRA
A. ONDARE GARBIA 2017KO EKITALDIAREN AMAIERAN		251.412,38	2.353.369,56	0,00	14.610,13	2.619.392,07
B. DOIKUNTZAK ERROREEN ZUZENKETAGATIK ETA KONTABILITATE-IRIZPIDEEN ALDAKETENGATIK, 2017KO EKITALDIA						0,00
C. 2018KO EKITALDIAREN HASIERAKO ONDARE GARBIA DOITUA (A+B)		251.412,38	2.353.369,56	0,00	14.610,13	2.619.392,07
D. 2018KO EKITALDIAREN ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK		0,00	-203.805,90	0,00	-13.128,92	-216.934,82
1. Ekitaldiaren aintzatesitako sarrerak eta gastuak			-211.350,59	0,00	-13.128,92	-224.479,51
2. Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako eragiketak						0,00
3. Ondare garbiaren bestelako aidakuntzak	14		7.544,69			7.544,69
E. ONDARE GARBIA 2018KO EKITALDIAREN AMAIERAN (C+D)		251.412,38	2.149.563,66	0,00	1.481,21	2.402.457,25



2. 2019KO ABENDUAREN 31N AITORTUTAKO DIRU SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

KONTUAK		MEMORIAN AIPUAK	2019	2018
129	I. Ondarearen emaitza ekonomikoa		-211.350,59	308.226,70
	II. Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako sarrerak eta gastuak			
	1.- Ibilgetu ez-finantzarioa			0,00
920	1.1. Sarrerak			
(820), (821), (822)	1.2. Gastuak			
	2.- Aktibo eta pasibo finantzarioak			0,00
900, 991	2.1. Sarrerak			
(800), (891)	2.2. Gastuak			
	3.- Kontabilitate estaldurak			0,00
910	3.1. Sarrerak			
(810)	3.2. Gastuak			
94	4.- Ondarearen beste gehikuntza batzuk			
	Guztira II. Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako sarrerak eta gastuak (1+2+3+4)		0,00	0,00
	III. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estaltako partiden hasierako balora egindako transferentziak			
(823)	1.- Ibilgetu ez finantzarioa			
(802), 902, 993	2.- Aktibo eta pasibo finantzarioak			
(811) 911	3.- Kontabilitate estaldurak			
(84)	4.- Ondarearen beste gehikuntza batzuk	7	-13.128,92	-175.426,81
	Guztira III. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura egindako transferentziak edo estaldutako hasierako aurrekontu-partidara (1+2+3+4)		-13.128,92	-175.426,81
	IV. Aintzatetsitako sarrerak eta gastuak GUZTIRA (I + II + III)		-224.479,51	132.799,89



3. ERAKUNDE JABEAREKIN EGINDAKO ERAGIKETEN EGOERA

a) ERAKUNDE JABEAREKIN EGINDAKO ONDARE ERAGIKETAK 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAN

	MEMORIAN AIPUAK	2019	2018
1. Ondarearen diruzko ekarpenak			
2. Ondasunen eta eskubideen ekarpenak			
3. Pasibo finantzarioen onarpena eta barkatzea			
4. Erakunde jabeak egindako beste ekarpen batzuk			
5. (-) Ondasunen eta eskubideen itzulpena			
6. (-) Erakunde jabeari egindako beste itzulpen batzuk			
GUZTIRA		0,00	0,00

a) ERAKUNDE JABEAREKIN EGINDAKO BESTE ERAGIKETAK 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAN

	MEMORIAN AIPUAK	2019	2018
1. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan zuzenean aintzatetsitako gastuak eta sarrerak	7	2.926.552,54	2.960.647,00
2. Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta sarrerak			
GUZTIRA		2.926.552,54	2.960.647,00



**2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION EFEKTIBO FLUXUEN
 EGOERA**

	MEMORAN AIPLUAK	2019	2018
I. GESTIO-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK			
A) Kobrantzak		4.000.440,45	4.330.181,30
1. Zerga bidezko sarrerak			
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak		3.064.720,86	3.039.163,47
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak		506.081,53	452.049,61
4. Beste erakunde batzuek bildutako baliabideen gestioa			
5. Kobratutako interesak eta dibidendua			
6. Beste kobrantza batzuk		429.638,06	838.968,22
B) Ordainketak		-3.197.417,56	-3.367.363,55
7. Langileek eragindako gastuak			-338.992,28
8. Ermandako transferentziak eta diru-laguntzak			
9. Hornidurak		-33.552,00	-53.985,00
10. Gestio bestelako gastuak		-2.895.567,80	-2.851.259,62
11. Beste erakunde batzuek bildutako baliabideen gestioa			
12. Ordaindutako interesak		-74,97	-27,54
13. Beste ordainketa batzuk		194.569,60	-123.099,11
Gestio-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+A-B)		803.022,89	962.817,75
II. INBERTSIO-JARDUEREN DIRU-FLUXUAK			
C) Kobrantzak:		0,00	0,00
1. Inbertsio errealeen salmenta			
2. Aktibo finantzarioen salmenta			
3. Inbertsio jardueren beste kobrantza batzuk			
D) Ordainketak:		0,00	-280.508,14
4. Inbertsio errealeen erosketak		0,00	-280.508,14
5. Aktibo finantzarioen erosketak			
6. Inbertsio jardueren beste ordainketa batzuk			
Inbertsio jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+C-D)		0,00	-280.508,14
III. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
E) Ondarearen hazkundea		0,00	0,00
1. Erakunde jabearen beste ekarpen batzuk			
F) Erakunde jabeari edo jabeai egindako ordainketak		0,00	0,00
2. Erakunde jabeari edo jabeai ekarpenak itzultzea eta emaitzak banatzea			
G) Kobrantzak pasibo finantzarioen jaulkipenengatik		0,00	0,00
3. Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak			
4. Jasotako maileguak			
5. Bestelako zorrak			
H) Ordainketak pasibo finantzarioen diru-itzultzeengatik		0,00	0,00
6. Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak			
7. Jasotako maileguak			
8. Bestelako zorrak			
Finantzaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (E-F+G-H)		0,00	0,00
IV. SAILKATZEKO DAUDEN DIRU-FLUXUAK			
I) Aplikatzeko dauden kobrantzak			
J) Aplikatzeko dauden ordainketak			
Sailkatze dauden diru-fluxu garbiak (+I-J)		0,00	0,00
V. TRUKETASEN ALDAKUNTZEN EFEKTUA			
VI. DIRUAUEN ETA DIRUAUEN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOREN IGOERA/JAITSIERA GARBIA (I+II+III+IV+V)		803.022,89	682.309,61
Ekitaldiaren hasierako diruaren baliokide diren aktibo likidoak eta dirua		8.979.123,31	8.296.813,70
Ekitaldiaren amaierako diruaren baliokide diren aktibo likidoak eta dirua		9.782.146,20	8.979.123,31



GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA - AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO EGOERA

SARREREN KAPITULUAK	HASIERAKO AURREKONTUA	EKITALDIKO ALDAKETAK	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	ONARTUTAKO ESKUBIDEAK	SARTUTAKOAK	KOBATZEKE
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	450.000,00	0,00	450.000,00	453.704,67	424.261,99	29.442,68
4. OHIKO TRANSFERENTZIAK	2.911.180,00		2.911.180,00	2.926.552,54	2.920.428,54	6.124,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK	4.150,01		4.150,01			0,00
8. FINANTZA AKTIBOAK		303.408,61	303.408,61			0,00
SARREREN EGOERA GUZTIRA	3.365.330,01	303.408,61	3.668.738,62	3.380.257,21	3.344.690,53	35.566,68

GASTUEN KAPITULUAK	HASIERAKO AURREKONTUA	EKITALDIKO ALDAKETAK	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK	ORDAINDUTA	ORDAINTZEKE
1. LANGILEAREN GASTUAK	486.000,00	-56.000,00	430.000,00	425.722,74	416.728,53	8.994,21
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK	2.863.980,00	365.408,61	3.229.388,61	3.025.977,16	2.699.024,68	326.952,48
3. FINANTZA GASTUAK	1.000,00		1.000,00	0,00	0,00	0,00
4. OHIKO TRANSFERENTZIAK	10.200,00	-6.000,00	4.200,00	2.956,25	2.956,25	0,00
6. INBERTSIO ERREALAK	4.150,00	0,00	4.150,00	0,00	0,00	0,00
GASTUEN EGOERA GUZTIRA	3.365.330,00	303.408,61	3.668.738,61	3.454.656,15	3.118.709,46	335.946,69

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

ESKUBIDE ONARTU GARBIAK	3.380.257,21
OBLIGAZIO ONARTU GARBIAK	-3.454.656,15
EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	-74.398,94
DOIKUNTZA:	
Diruzaintza gerakinekin finantzatutako kredituak	258.422,80
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	184.023,86

DIRUZAINZAKO GERAKINEN EGOERA

	31.12.19	31.12.18
FUNT'S LIKIDOA	9.782.146,20	8.979.123,31
KOBATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	233.813,57	574.682,74
Aurrekontu-izaerakoak	35.566,68	201.857,12
Aurrekontu ez izaerakoak	198.246,89	372.825,62
ORDAINTZEKE DAUDEN ONARTUTAKO OBLIGAZIAOK	-7.945.192,03	-7.408.639,38
Aurrekontu-izaerakoak	-335.946,69	-243.384,06
Aurrekontu ez izaerakoak	-7.609.245,34	-7.165.255,32
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA	2.070.767,74	2.145.166,67
DOIKUNTZA:		
Finantzaketa lotuaren soberakina	0,00	-7.544,69
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	2.070.767,74	2.137.621,98

DIRUZAINZAKO GERAKINEN ARTEKO KONTZILIAZIOA

2018-12-31KO DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA	2.145.166,67
+/- 2019KO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	-74.398,94
2019-12-31KO DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA	2.070.767,73

Txostena



MEMORIA

1. PARTZUERGOAREN ANTOLAMENDUA ETA JARDUERA

1.1.- Erakundearen osaeraren/erregulazioaren araua

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA-AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA partzuergo-izaerako erakunde juridiko-publiko gisa eratu zen 2011ko otsailaren 14an, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA - AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA, S.A. sozietateak bere aktibo eta pasibo guztiak laga ostean, Donostiako Enrique Garcia Jalon de la Lama notario jaunak 174. protokolo-zenbakiarekin sinatutako eskrituran jasotakoaren arabera.

Donostiako Easo kaleko 74-1 zenbakian ditu egoitza soziala eta fiskala.

1.2.- Erakundearen jardura nagusia, araubide juridiko ekonomiko-finantzarioa eta kontratazioko araubidea.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Partzuergoaren izaera juridikoa edukiko du urriaren 1eko 0/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoak, jasotako baldintzetan. Hortaz, zuzenbide publikoko erakunde administratiboa da, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituen, ezarritako helburuak betetzeko.

Abenduaren 15eko 5/2003 Legeak, Euskadiko Garraioaren Agintaritzarenak, xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak dagokion lurralde-eremuko Garraioaren Lurralde Agintaritzak gisa eratu da, eta, horri dagokionez, helburu eta xede hauek ditu:

- a) Jardura hauetan laguntzea: garraioaren antolamendu-politikak definitzea; garraioaren politika erkidea koordinatzea; garraio-mota ezberdinak planifikatzea; garraio-politikak lurralde-orekari eta, orokorrean, garapen iraunkorrari egokitzea, eta garraioaren arloan erkidego-politikak ezartzea eta egikaritzea.
- b) Garraio-arloetan eskumenak dituzten erakundeek ahalmen publikoen jardura koordinatua sustatzea eta erraztea, administrazioen arteko lankidetzak nork bere egitea, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-politiken inguruko interes ezberdinak bateratzea.
- c) Zerbitzuen, sareen eta tarifen koordinazioa sustatzea, eta erabiltzaileei eskaintza hobea egitea, garraioaren erabilera areagotzeko eta sustatzeko helburu bakarrarekin.
- d) Garraio-sare bakarra eta integrala sustatzea.
- e) Garraio zentzudunagoa eta eraginkorragoa sustatzea garapen iraunkorraren aspektu sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak integratzearen bidez.
- f) Baliabide publikoak eta pribatuak optimizatzea garraioaren ezberdinen elkarreragingarritasuna sustatzeko eta Europako garraio sisteman sartzeko.



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak xede hauek ditu:

- a) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren antolatzea, Gipuzkoako garraio-zerbitzuen eta -azpiegituren arloan.
- b) Koordinazioa eta lankidetzaren antolatzea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeen eta partzuergo horretakoak ez diren baina Gipuzkoan garraio-zerbitzuen eta -azpiegituren titular edo emakidadun diren garraio-operadore eta erakundeen artean.
- c) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten erakundeen eskumenekoak diren jardura-mota guztiak kudeatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-zerbitzuen eta -azpiegituren esparruan. Ondorio horietarako, kasuan kasu aplikagarri izango den agiri juridikoaren bitartez, honako hauek egin beharko dira: (i) kasuan kasuko esleipenak, transferentziak edo eskumen-eskuordetzeak; edo (ii) kasuan kasuko kudeaketaren ardura-emateak.

Partzuergoak lan hau burutzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren «Lurraldebus gunea» Garraio Publikoko Kudeaketa Integraleko Zentroak kudeatzen duen plataforman oinarria duenak, Txartel Bakarria eratu eta garatu du, Foru Aldundiaren eta berariazko hitzarmenak sinatzen dituen beste administrazioen eskumeneko garraio modu desberdinetan bidaiatzea ahalbidetzen duen txartel adimenduna izateko.

Txartel bakarraren helburu nagusia, foru-emakidetan eta hiri-garraioaren hainbat udal-zerbitzutan ezarri ostean, Gipuzkoako gainontzeko garraio moduetan sartu eta benetako tarifa sistema bateratua ezartzea izan da.

Xede horrekin, 2012ko otsailaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Eusko Jaurlaritzak, Donostiako, Irungo eta Errenteriako Udalek, Eusko Trenbideak eta Renfek haien eskumenen eta jardueren eremuan tarifa-sistema bateratuaren ezarpena sustatzeko «Gipuzkoan garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko lankidetzarako protokolo orokorra sinatu zuten».

Protokolo horren lankidetzaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak 2012ko abenduaren 28an «Gipuzkoan garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko hitzarmena» sinatu zuten.

Hitzarmenaren 8. xedapenak aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskualdatu behar dizkiola Lurraldebus, SL sozietateak txartel bakarraren inguruan burututako jarduerari dagozkion aktiboak, eskubideak eta betebeharrak.

Gipuzkoako Foru Aldundia da Lurraldebusen aktiboen eta pasiboen titularra, «Lurraldebus SL persona bakarreko sozietatearen aktiboak eta pasiboak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzeko proiektuak», Diputatuen Kontseiluak 2013ko otsailaren 26ak onartutakoak, jasotakoari jarraikiz.



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak tarifa-sistema bateratua sustatzea eta koordinatzea du xede, eta 2013ko martxoaren 4az geroztik tarifa-sistema bateratua kudeatu eta «Mugi» txartel bakarra igorri eta banantzeaz arduratzen da. Horri dagokiola, ezinbestekoa da sistemak ondo funtzionatzeko baliabide materialak eta teknologikoak eskura izan ditzala.

Horregatik, ezinbestekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak aktibo horiek eta haietatik eratorritako obligazioak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzari eskualdatu edo lagatzea, Gipuzkoako garraio publikoan tarifa-sistema bateratua ezartzeak dakarren onura publikoa dela-eta hura posible egiten duten zerbitzuei jarraipena ematen zaiela bermatzeko. Diputatuen Kontseiluak 2013ko martxoaren 5ean hartutako erabakia da.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa Estatutu hauetara eta haien Osaerako Hitzarmenera egokituko da, eta, horien ordezt, Lege hauetara:

- a) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- b) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioaren eta Iraunkortasunarena.
- c) 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen.
- d) 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (eta, haren ordezt, 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen).
- e) 5/2003 Legea, abenduaren 15ekoa, Euskadiko Garraioaren Lurralde Agintaritzarena, aplikagarria den heinean.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren aurrekontu, ekonomia-finantza eta kontabilitatearen araubidea atxikita dagoen herri-administrazio partzuergokideari dagokionarekin bat etorriko da.

Une honetan Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita dagoenez, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua bete behar du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu eta finantza erregimenari buruzkoa; eta, horretaz gain, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren alorrean jarraibideak onar ditzake, alderdi hauei dagokienez: aurrekontu-kredituen lotura juridikoa, aurrekontuko aldaketak (horiek onartu behar dituzten organo eskudunak aipatuz), gastuen eta ordainketen onarpena, eskubideen aitortzea, etab.

Gai horiek Aurrekontua Egikaritzeko Arauan (urtekoa) erregula daitezke halaber, aplikagarriak izango direnak dagokien ekitaldi ekonomikorako.



Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza aurrekontuetan egon behar da, eta atxikipeneko herri administrazioaren kontu orokorrean sartu.

Atxikita dagoen herri administrazio partzuergokidearen kontrol-organoak eramango du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ekonomiaren, finantzen eta kudeaketaren kontrola, eta, horretarako, kontu-ikuskaritzako prozedurez baliatuko da. Prozedura horiek kontu-hartzaileak eginiko kontrola ordezkatzeko dute, eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren funtzionamendu ekonomiko-finantzarioa egiaztatzea izango dute xede.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren jardura ekonomiko-finantzarioa Kontuetarako Euskal Auzitegiaren kanpo-fiskalizazioari lotua dago.

Partzuergoetarako sektore publikoko kontratuen legeriak jasoko du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren kontratazioko araubidea.

1.3.- Diru sarrera nagusien deskribapena

Diru sarrerak bi bidetatik datoz batez ere:

1.-Erakunde partzuerrek eginiko diru ekarpenak (taula bat jarri dugu, erakunde partzuer bakoitzak eginiko ekarpenak agertuz, ehunekotan):

Erakundea Entidad	Asanblada Orokorreko % % participación en Asamblea General	BIDAIARIEN ARABERAKO % % EN FUNCIÓN DE VIAJEROS
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco	45,000%	46,125%
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	45,000%	46,125%
Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián	5,000%	7,000%
Irungo Udala Ayuntamiento de Irún	1,390%	0,415%
Errenteriako udala Ayuntamiento de Erreñeria	0,880%	0,175%
Eibarko udala Ayuntamiento de Eibar	0,620%	0,013%
Zarauzko udala Ayuntamiento de Zarauz	0,520%	0,066%
Arrasateko udala Ayuntamiento de Arrasate	0,490%	0,044%
Hernaniko udala Ayuntamiento de Hernani	0,450%	0,009%
Lasarte-Oriako udala Ayuntamiento de Lasarte-Oria	0,410%	0,009%
Oiartzungo udala Ayuntamiento de Oiartzun	0,230%	0,020%
GUZTIRA TOTAL	1,000	1,000



Batzar Nagusiaren partaidetzaren %-koaren taulak erakunde partzuergokideek egindako ekarpenak jasotzen dituzte, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren gastuak finantzatzeko.

Bidaia-erakundearen arabera %-koaren taulak tarifa batasunarekin lotutako gastuak finantzatzen dituzten bidaia-erakundearen egiten die erreferentzia.

2.- MUGI txartelaren salmentagatik lortutako diru-sarrerak

1.4.- Erakundearen zerga-egitatea, eta, hala badagokio, BEZa jasanarazi behar duten eragiketak eta hainbanaketaren ehunekoa.

1. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari zuzenean lotutako operazioak ez daude BEZari atxikita.
2. Aldiz, tarifa-sistema bateratuari lotutako operazioak BEZari atxikita daude.
3. BEZari atxikitako eta atxiki gabeko operazioei gerora ere irizpide berdina eta bidezkoa aplikatuko zaie. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak urteko aurrekontuen arabera ezartzen du irizpide hori. Urteko aurrekontuan zergari atxikitako eta atxiki gabeko operazioak jasota utzi ostean, aplikatuko zaien BEZaren %-koa zehaztu da.

1.5.- Oinarrizko antolamendu-egitura

Hauek dira Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren gobernu-organismoak:

- Batzar Orokorra
- Batzar Orokorraren lehendakaria
- Batzar Orokorraren lehendakariordea

1.6 Erakundearen arduradun nagusiak

Jarraian aipatzen diren erakundeek borondatez erabaki dute Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoa eratzea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritza.
- Donostiako Udala.
- Irungo Udala.
- Errenteriako Udala.
- Eibarko Udala.
- Zarauzko Udala.
- Arrasateko Udala.
- Hernaniko Udala.
- Lasarte-Oriako Udala.
- Oiartzungo Udala.



1.7.- Batez besteko langile kopurua ekitaldian eta abenduaren 31n

	2019		2018	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Langileak	3,00	4,00	2,00	4,00

2019ko abenduaren 31n, 7 langile zituen: Zuzendari orokorra, teknikari juridikoa, plangintzako eta mugikortasuneko teknikaria, kudeaketa ekonomiko-administratiboko teknikaria, kudeaketa orokorreko 2 teknikari eta administrazio- kudeatzailea.

1.8.- Hala badagokio, subjektu kontablea erakunde honen mende egongo da:

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Gipuzkoako Foru Aldundiaren mende dago.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

■ **Irudi leiala**

Urteko kontu hauek egiteko, bere kontabilitateko erregistroak erabili ditu erakundeak. Kontuak egiteko, abenduaren 28ko 51/2012 Foru Dekretuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kontabilitate Publikoko Plana onartu zuenean, jasoriko kontabilitate printzipioak eta balioztapen irizpideak erabili dira (4/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, bere 116. artikuluan ezartzen duen bezala). Era berean, kontabilitatearen arloan indarrean diren gainerako lege xedapenak ere aplikatu dira. Kontu hauek partzuergoaren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi leiala eskaintzen dute. Bazkideen Batzar Nagusiak onartu behar ditu kontuak, eta pentsatzen dugu inongo aldaketarik gabe onartuko direla.

Ez dago salbuespenezko arrazoirik, irudi leiala eskaintzeko kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko

■ **Informazioa konparatzea**

Urteko kontuetan, konparatzeko, 2019ko ekitaldiko zenbakiak eta aurreko ekitaldikoak daude hauei dagokienez: balantzeko kontu sail bakoitza, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera orria, aitorturiko diru sarreraren eta gastuen egoera orria, erakunde jabearekin egindako eragiketen egoera orria, eskudiruaren fluxuen egoera orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera orria eta memoria. Era berean, 2019ko ekitaldiari dagokion memoria honetan dagoen informazioarekin batera, 2018ko ekitaldiari dagokion informazioa ageri da, konparazioa egiteko

■ **Akatsak zuzentzea**

2019ko ekitaldiko urteko kontuetan ez dira sartzen aurreko ekitaldietan izaniko kontabilitateko akatsen ondorioz eginiko doikuntzak.



■ **Aldaketak kontabilitateko irizpideetan**

2019ko ekitaldian ez da izan aldaketa esanguratsurik kontabilitateko irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikaturiko irizpideekin alderatuta.

■ **Kudeaketa jarraitua**

Erakundeak kudeaketa jarraituaren printzipioarekin egin ditu 2019ko ekitaldiko urteko kontuak, eta kontuan hartu du COVID-19aren egungo egoera, baita horrek ekonomian oro har eta bere erakundearen bereziki izan ditzakeen ondorioak ere, eta ez dago bere jardueran jarraitzeko arriskurik, memoria honen 14. oharrean zehaztu den bezala.

Erantsitako urteko kontuak egiteko, Zuzendaritza Nagusiak egindako estimazioak erabili dira, haietan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk baloratzeko. Funtsean, honako hauek dira zenbatespen horiek:

- Aktibo jakin batzuen narriaduragatik izan daitezkeen galeren ebaluazioa.
- Aktibo materialen eta ukiezinen balio-bizitza

Zenbatespen horiek etengabe ebaluatzen badira ere, emaitza errealak beste modu batera ager litezke. Eta, era berean, baliteke kalkulu horiek 2019ko ekitaldiaren itxieran eskuragarri zegoen informaziorik onenean oinarrituta egin izana, baina baliteke etorkizunean gerta daitezkeen gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartzea (gorantz edo beherantz), eta hori, hala badagokio, modu prospektiboan egingo litzateke.

3. AITORPEN ETA BALIOZTATZE ARAUAK

Ekitaldi honi dagozkion urteko kontuak egiteko partzuergoak erabili dituen balioztatze arau nagusiak hauek dira, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritakoaren arabera:

■ **Ibilgetu materiala**

Erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen da. Barnean sartzen dira, prezioaren deskontuak edo beherapenak kendu ondoren fakturatu den zenbatekoaz gain, funtzionatzen jarri arte gertatzen diren gainerako gastu guztiak, zuzenean lotuta daudenak, esaterako, lur berdinketa eta eraisketa gastuak, garraioa, aseguruak, instalazioa, muntaketa eta antzeko beste batzuk.

Ibilgetu material batzuek urtebete baino gehiago behar dute erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan egoteko, eta horien kostuaren barnean, Partzuergoak zenbait finantza gastu sartzen ditu, hain zuzen ere, erosteko, eraikitzeko edo ekoizteko egotz daitekeen berariazko finantzaketa edo finantzaketa orokorra.

Partzuergoko zuzendari nagusiak irizten du aktiboen kontabilitate balio garbiak ez duela gainditzen aktibo horien balio berreskuragarria.

Ibilgetu materialaren elementu baten balioaren hondatze galera gertatzen da, haren



kontabilitate balio garbiak haren balio berreskuragarria gainditzen duenean. Balio berreskuragarria hauxe da: arrazoizko balioari salmenta kostuak kendu ostean lortutako zenbatekoaren eta erabilera balioaren artean izan daitekeen zenbatekorik handiena.

Elementuak funtzionatzeko moduan dauden unetik, elementu horien amortizazioa linealki egiten da haien bizi erabilgarri estimatuan, eta, era berean, haien hondar balioa baliogabea dela kalkulatzen da. Lursailak ez dira amortizatzen, haien bizi erabilgarria zehaztugabea delako. Konponketa lan handiak gisa zehazturiko zenbatekoa ez da gainerako elementua bezala amortizatzen, konponketa horiek egin arteko aldian.

■ **Ibilgetu ukiezina**

Ibilgetu ukiezina erosketaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen da hasieran; eta, ondoren, honela balioztatzen da: haren kostua ken amortizazio metatua eta/edo erregistratutako narriatzeagatikozuzenketen zenbatekoa. Negozioen konbinazio bidez eskuratutako ibilgetu ukiezinaren kostua da erosketaren datan horrek duen arrazoizko balioa. Hasierako balioztatzearen ondoren, ibilgetu ukiezina bere kostuaren arabera balioztatzen da, amortizazio metatua kenduta, eta, hala badagokio, erregistratutako narriatzeagatikozuzenketen metatutako zenbatekoa ere bai.

Aktibo ukiezinak balio bizitza zehatza duten aktiboak dira, eta, beraz, sistematikoki amortizatzen dira, horietarako zenbatetsitako balio bizitzaren beren hondar balioaren arabera. Aplikaturiko amortizatzeko metodoak eta aldiak berrikusi egiten dira ekitaldia ixten den bakoitzean, eta, hala badagokio, geroko ikuspegiarekin doitzen dira. Ekitaldiaren itxieran behintzat, narriadura zantzurik ba ote dagoen aztertzen da; hala bada, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatesten dira, eta egoki irizten diren balorazio zuzenketak egiten dira. Aktibo hauen balio bizitza ezin denean modu fidagarrian zenbatetsi, hamar urteko epean amortizatuko dira; edonola ere, bete egingo dira ibilgetu ukiezinarentzat arau partikularretan ezarritako epeak.

Partzuergoak kontabilitatean aitortuko du narriadura dela eta aktibo horien erregistratutako balioan izan daitekeen galera oro. Horren kontrapartida gisa, galera-irabazien kontuko “narriaduratik sortutako galera garbiak” epigrafea erabiltzen da. Aktibo hauen narriaduratik sortutako galerak aitortzeko irizpideak, eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistraturiko narriaduratik sortutako galeren ondorioak aitortzeko irizpideak, aktibo materialen kasuan aplikaturikoen antzekoak dira. Ekitaldi honetan ez dira aitortu aktibo ukiezinetatik eratorritako “narriaduratik sortutako galera garbiak”.

Ibilgetu ukiezin batzuek urtebete baino gehiago behar dute erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan egoteko, eta horien kostuaren barnean, partzuergoak zenbait finantza gastu sartzen ditu, hain zuzen ere, erosteko, eraikitzeko edo ekoizteko egotz daitekeen berariazko finantzaketa edo finantzaketa orokorra.

Jabetza industrial, patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak

Jabetza industrial balioztatzeko, hauek hartzen dira kontuan: jabetza industrial horren alderdi desberdinen jabetza eskuratzeko edota horien erabilera eskubidea edo erabileraren emakida eskubidea eskuratzeko eginiko gastuak, baldin eta, kontratuari atxikiriko baldintza ekonomikoak direla-eta, enpresa eskuratzaileraren inbentarioa egitera behartuta badago.



Besteak beste, hauek sartzen dira: asmakuntza patenteak, erabilgarritasun ereduak babesteko ziurtagiriak, industria diseinua eta ekoizpen patenteak.

Jabetza industrialaren eskubideak erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen dira, barnean sartuz dagokion patentea edo antzekoa eskuratzen den unean aktibatzen diren garapen gastuen liburu balioa, jabetza industrialaren erregistratzeko eta formalizatzeko kostua barne. Amortizatu egiten dira eta narriatzeagatik balorazio zuzenketa egiten zaie.

Informatika aplikazioak

Erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen dira, eta epigrafe honetan jasotzen dira web orriak egiteko gastuak (beti ere, horiek zenbait urtetan erabiltzea aurreikusten bada).

■ **Finantza tresnak: aktibo finantzarioak**

Aitortzea, balioztatzea eta sailkapena

Orokorrean, erosten direnean aitortzen dira egoera balantzean, eta, hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, barnean sartuz orokorrean eragiketa kostuak.

Maileguak eta kobratzeko kontuak:

Eragiketa komertzialetan (bezeroak eta hainbat zordun) edo ez-komertzialetan (hirugarren batzuentzako kredituak) sor ditzakete hauek. Amortizatutako kostuaren arabera erregistratzen dira, entregatutako eskudiruarekin bat etorriz, betiere egindako printzipalaren itzulketak kenduta eta kobratu ez diren sortutako interesak gehituta, maileguen kasuan. Kobratzeko kontuen kasuan, aldiz, emandako ordainaren uneko balioa erregistratzen da. Dagozkion hornidurak erregistratzen dira, kobratzeko kontuetatik berreskuratzeko dagoen zenbatekoaren eta horiek erregistratzerakoan dagoen liburu balioaren arteko alde dela-eta.

Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk:

Kontu sail honetan erregistratzen dira kutzako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta kutxan azkar egin daitezkeen eta balioan aldaketarik izateko arriskurik ez duten likidezia handiko eta epe laburreko bestelako inbertsioak.

Aktibo finantzarioen baja

Aktibo finantzarioei baja ematen zaie iraungitzen direnean edo eskudiru fluxuen gaineko kontratu eskubideak beste bati lagatzen zaizkionean. Beharrezkoa da aktiboaren jabetzari dagozkion arriskuak eta onurak neurri handi batean eskualdatu izana.

Baja ematean honela zehaztuko du irabazia edo galera, berori gertatzen den ekitaldiaren emaitzan: egotz daitezkeen transakzio kostuen jasotako kontraprestazio garbiaren (kontuan hartuz eskuraturiko edozein aktibo berri ken onarturiko edozein pasibo) eta aktibo finantzarioaren liburu balioaren arteko aldea, gehi ondare garbian zuzenean aitortu den pilatutako edozein kopuru.

Aitzitik, ez zaie baja ematen aktibo finantzarioei, eta jasotako kontraprestazioaren araberrako pasibo finantzarioa onartzen da, bere jabetzak berezko dituen arrisku eta onurak neurri handi



batean atxikitzen dituzten aktibo finantzarioen lagapenetan, hala nola efektuen deskontuan, helegitedun factoring-ean, edo berrerosteko ituna duten salmentetan.

■ **Finantza tresnak: pasibo finantzarioak**

Finantza tresnak pasibo finantzario gisa sailkatzen dira, beti ere enpresarentzat eskudirua edo beste aktibo finantzario bat entregatzeko kontratu obligazioa badakarte

Pasibo finantzario nagusiak beren arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira hasieran (transakzioaren prezioa edo jasoriko eskudirua), eta gero kostu amortizatuaren arabera balioztatzen dira. Galera-irabazien kontuan aitortuko dira sortutako interesak, interes tasa eraginkorraren arabera.

Pasibo finantzario baten baja ematen da obligazioa iraungi denean. Liburu balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko desberdintasuna ekitaldiko galera-irabazien kontuan aitortzen da; kontraprestazioan sartuko dira transakzioari egotz dakizkiokeen kostuak.

■ **Diru sarrerak eta gastuak**

Diru sarrerak eta gastuak sortzapean irizpidearen arabera egozten dira, haietatik eratorritako moneta edo finantza korrontea noiz gertatzen den kontuan hartu gabe.

Edonola ere, ekitaldiaren itxiera datan dauden mozkinak kontabilizatzen dira soilik. Bitartean, aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, balizkoak badira ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Ondasunak edo zerbitzuak saltzearen ondoriozko diru sarrerak horietatik eratorrita jaso den edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira. Azkar ordaintzeagatik edo bolumenagatik deskontuak edo bestelako deskontuak, baita kredituen nominalean gehitutako interesak ere, horien minorazio gisa erregistratzen dira. Hala eta guztiz ere, kreditu komertzialei erantsitako interesak sartzen dira, epemuga urtebetekoa edo gutxiagokoa denean eta kontratuzko interes tasarik ez dutenean, diru fluxuak ez eguneratzeak garrantzi handirik ez badu.

Bezeroei emandako deskontuak kontabilizatzen dira horiek emateko baldintzak seguruenik beteko direla antzematen denean, salmenta sarreretan murrizketa gisa.

Etorkizuneko salmenten konturako aurrerakinak jasotako balioaren arabera balioztatzen dira.

■ **Transferentziak eta diru laguntzak**

Itzuli behar ez diren kapitaleko diru laguntzak emandako zenbatekoaren arabera balioztatzen dira. Hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru sarrera gisa aitortzen dira, eta galera-irabazien kontuan sartzen dira, diru laguntza horiekin finantzaturiko aktiboek aldi horretan izaten duten balio galeraren proportzio berean. Salbuespena da baliorik galtzen ez duten aktiboak izatea; kasu horretan, aktibo horiek besterentzen diren ekitaldian edo inbentarioan baja ematen zaien ekitaldian egozten dira emaitzan.

Diru laguntza itzulgarriak direnean, diru laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zor gisa kontabilizatzen dira.



Berariazko gastuak finantzatzeko emaniko diru laguntzak diru sarrera gisa egozten dira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian.

4. IBILGETU MATERIALA ETA UKIEZINA

Ibilgetu materialari urteko amortizazio ehuneko hauek aplikatu zaizkio:

Kontzeptua	% Urtekoa	Kontzeptua	% Urtekoa
Eraikinak	15,00%	Altzariak	
Instalazio teknikoak		Informatika ekipoak	
Makineria		Garraio baliabideak	
Lanabesak		Bestelako ibilgetu	
Bestelako instalakuntzak		Eraikinak (Ondasun higiezinetakoko inbertsioak)	

Ibilgetu ukiezinari aplikaturiko urteko amortizazio ehunekoak hauek izan dira:

Kontzeptua	% Urtekoa
203 – Jabetza intelektual	10,00%
206 – Informatika aplikazioak	20,00%

■ Ibilgetu materialaren eta ukiezinaren mugimenduak

BALIO GORDINA	Ibilgetu ukiezina	Ibilgetu materiala
2018ko hasierako saldoa	2.882.578,29	81.385,73
(+) sarrerak	508,14	
2018ko bukaerako saldoa	2.883.086,43	81.385,73
(+) sarrerak		
2019ko bukaerako saldoa	2.883.086,43	81.385,73

AMORTIZAZIO METATUA	Ibilgetu ukiezina	Ibilgetu materiala
2018ko hasierako saldoa	2.092.819,14	77.532,02
(+) 2018ko amortizazio-zuzkidura	310.528,84	1.822,07
2018ko bukaerako saldoa	2.403.347,98	79.354,09
(+) 2019ko amortizazio-zuzkidura	148.478,62	1.601,96
